

## Salgai daude Araba Marketeko landa negozioetan zure erosketa egiteko bonoak

*Arabako landa inguruneko negozioetarako plataforma digitalak 150 establezimendu baino gehiago ditu atxikita*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 1a.** Araba Market, Arabako landa-inguruneko negozioetarako plataforma digitala, bonoak erosteko aukera eskaintzen du gaurtik aurrera, herritarrek aurrezteko aukera izan dezaten proiektuari atxikitako establezimenduetan egiten dituzten erosketetan.

Bonuak abenduaren 24ra arte egongo dira eskuragarri, baldin eta lehenago agortzen ez badira, gehienez abenduaren 30era arte trukatu ahal izango dira eta pertsona bakoitzak gehienez 10 bonu erosi ahal izango ditu. Erosketa-tiketaren zenbatekoa 20 euroko bonuaren zenbatekoaren berdina edo handiagoa izan beharko da, erosketa bakoitza osorik agortzeko. Inola ere ez dizute dirurik itzuliko (ez erosketan, ez produktua itzultzean).

Arabako Foru Aldundiak, Vital Fundazioak eta Arabako Kuadrillek bultzatutako proiektua fase berri batean sartu da, eta are gehiago hurbildu da landa-eremuko jarduera ekonomikoa garatzen duten negozioei eta profesionaleri sustapen-kanal digital bat emateko helburura, salmentak handitzeko ikusgarritasun eta aukera gehiago eman diezaien. Halaber, Arabako landa-bizitzaren abantailei buruz sentsibilizatzeke, landa-eremuko Araba sustatzeko, ekiteko eta lan egiteko ingurune gisa.

Baina, zer eskaintzen die Araba Marketek Arabako eta Trebiñuko landa-ingurunean diharduten autonomoei eta mikroenpresei?

Plataformak bere negozioaren erakusleiho bat gaitzen du Interneten, guztiz doakoa, eta sustapen-ekintzak egingo ditu sare sozialetan, zure negozioaren ikusgarritasuna areagotzeko. Inskribatutako negozio bakoitzak orrialde bat du plataforman, bere produktu edo zerbitzuen sustapenarekin erakusleihoa pertsonalizatu ahal izateko, mezu, argazki, bideo eta abarren bidez.

Hori negozioentzat, baina publikoarentzat, Araba Marketek aukera ematen du tokiko produktuen eta orain arte gutxi ikusten ziren kalitatezko zerbitzuen eskaintza zabala erraz eta zuzenean ezagutzeko eta eskuratzeko. Arabako landa-ingurunearen iraunkortasunari laguntzeko balio erantsiarekin.